

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA AUZOEN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2026ko maiatzaren 29ko erabakiaren laburpena: Dirulaguntzen deialdi publikoa, hirian salgaiak banatzen, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetan edota taxi gisa baliatzeko ibilgailu elektrikoak erosteko 2026an

BDNS(Identif.): 913539.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/913539>).

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren ildotik, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

1. Taxi elektriko eskuratzeari dagokionez.

1.1. Vitoria-Gasteizko Udalak emandako taxi-lizentziatiko baten jabe diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta ibilgailu elektriko berri batekin ordeztzen badute lehendik lizentzia horri atxikitako ibilgailua.

1.2. Vitoria-Gasteizko taxi-elkarteak, baldin eta ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko bat edo mugikortasun urriko pertsonentzat egokitutako ibilgailu berri eta ehuneko 100 elektriko den bat edo ECO ingurumen-bereizgarria duen bat erosten badute, dela ordezeko ibilgailu gisa, dela zerbitzuak osatzeko asmoz.

2. Zama-bizikleta elektriko eskuratzeari dagokionez.

Salgaiak banatzeko, konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuetarako lanak egiteko edo pertsonak garraiatzeko zama-bizikleta berri bat erosten duten pertsona fisiko edo juridikoak.

3. Industria-ibilgailu arinak elektrifikatzeko.

Pertsona fisikoak edo juridikoak, baldin eta ibilgailu industrial ehuneko 100 elektriko arin eta berri bat bereganatzen badute Vitoria-Gasteizen banaketa-lanak edo konponketa-, instalazio- eta mantentze-zerbitzuak egiteko.

Bigarrena. Helburua

Taxia bi modalitatetan (egokitu gabeak ehuneko 100 elektrikoak edo egokituak ehuneko 100 elektrikoak edo ECO etiketa dutenak), zama-bizikletak, ehuneko 100 elektrikoak eta industria-ibilgailu arinak ehuneko 100 elektrikoak erostea, berriak.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko maiatzaren 29ko erabakiaren bidez onetsiak.

Laugarrena. Zenbatekoa

150.000,00 eurokoa da deialdiaren zuzkidura.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Aurrekontua agortu arte, edo 2026ko urriaren 16ra arte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko ekainaren 9a

Mugikortasuna Kudeatzeko Ataleko burua
DIEGO ROMO ARTUTX